

oren irakurtz eta azterketan igaro da batzaraldi onen asti guzia.

Otoitza egin-da amaitu da batzaraldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1924 'ko Azaroa 'ren 21 'an.

Egun ontan euskaltzain abek bildu dira: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Landeretxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza ta Lakonbe.

Otoitez asi da batzaraldia.

1. Aita Intza'k iragarí digu: Napa'oa'ko euskaldunak laxter bilduko dirala euskal-lan batzuek eragiteko, emakumeak ere arazo ontara deiturik. Emakume aben buruzagi *Markesa, de Besolla* deitzen dan euskal-andre agurgaríia izan liteke, onen bitartez, beste emakume asko érez sartu ditezen arazo ontan. Asmo utsa da oraindik gai auxe. Alaz ere, Euskaltzaindiak poz-pozik onesten ditu aita Intza'ren lenbiziko uratz abek.

2. Bilbo'ko Udalak idazki bat igortzen digu esanik: Aurtengo Urri'aren 7'an erabaki au artu zuela: a) Euskal-tzaindiari galdetu, nola erabaki ote lezaken euskal-ikastaroa; b) iragartzen digu lendik 12 irakasle dituela bere ikastoletan, bañan 4 naikoa zaizkiola aurrerantzean. Amabi irakasle oietatik, lau aukeratu lezazkike Euskaltzaindiak, beroni egoki eta jakintsuenak deritzazkionak. Amabietatik, iñor ezpaltz egoki ta diña, lau beñi izendatzeko Euskaltzaindiari damayo eskubidea. Ganera onek esan bezayo Udala-

ri, zer arau ta zer ikasbide jañi lezazkiken ikastoletan, euskera ondo erakusteko.

Erantzun bear zayo Bilbo'ko Udalari: Euskaltzaindiak poz-pezik egingo duela euskal-ikastoletako araudia; ikastaroko mañak, liburu, irakurgai ta abar. Irakasleak ordea, Udalak berak aukeratu lezazkikela, lengo amabietatik lau arazoan zañenak artu-ta, baldin abek egokiak baderitzazki. Bide au ez nai izatekotan azterketara edo oposiziora jo liteke.

3. Euskaltzainburuak esaten digu: Nazario Oleaga jaunarekin egongo dala, Bizkai'ko *Euskeraren adiskideak* alkar ikusi ta batzañaldi bat izan dezaten, gaur edo bigarko lanetarako gertu egoteko.

4. Euskal-ikastoletan bear liraken liburu batzuek, Euskaltzaindiaren mayean agertu dira. Abei dagokien txosten bat idatzi edo azaltzeko batzorde bat izendatu da: Eguskitza, Olabide ta Intzagarai. Bigarko ekañi lezateke.

5. Azkue jaunak bere *Morfología* irakuñi du.

6. Aita Intza'k gure artera dakarzuki: gure aldizkari *Euskera*, irakuñgafiago, bere iritxiz, eragin lezateken arauak. Euskaltzaindiak jaso ditu arau abek garaiz aztertzeke. Baita Landeretxe jaunak ekañi dizkigu, gai ontan, berari dagozkion zuzenkunak ere.

7. Euskaltzaindiak agur egin nai dio Gipuzkoa'ko Aldun-Buru beñiari. Oñetarako iru euskaltzain aukeratu dira: Azkue, Kanpion ta Altube.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta amaitu da batzañaldi au.